



ZESTOAKO UDALA

## BASERRITARREKIN BATZARRA

### Lehen saioa: Akoa, Aizarna, Txiriboga

**Bilera data** : 2024/04/17 **Lekua** : Aizarna, Herri Etxea  
**Hasiera ordua** : 18:00 **Bukaera ordua** : 19:30

#### Bertaratutakoak:

|                |                                      |                   |                                   |
|----------------|--------------------------------------|-------------------|-----------------------------------|
| A.O.           | <b>Aizarna</b>                       | M.E.              | <b>Zubigoena (Akoa)</b>           |
| J.R.L.         | <b>Goikoetxe (Akoa)</b>              | X.B.              | <b>Antxitxardi (Aizarna)</b>      |
| T.B.           | <b>Antxitxardi (Aizarna)</b>         | F.Z.              | <b>Indo (Txiriboga)</b>           |
| O.U.           | <b>Ilurdanbekoa, Arama (Aizarna)</b> | O.L.              | <b>Aizarnatea (Aizarna)</b>       |
| K.I.           | <b>Sorabilberri (Aizarna)</b>        | J.E.              | <b>Irure (Aizarna)</b>            |
| A.A.           | <b>Egaña (Aizarna)</b>               | J.A.              | <b>Ezenarrogoikoa (Aizarna)</b>   |
| A.A.           | <b>Ezenarrogoikoa (Aizarna)</b>      | S.L.              | <b>Elkoeta (Aizarna)</b>          |
| J.E.           | <b>Arbegain (Txiriboga)</b>          | F.L.              | <b>Aizarna</b>                    |
| J.A.           | <b>Ertxiñeko (Aizarna)</b>           | M.A.U.            | <b>Aranburu (Aizarna)</b>         |
| A.G.           | <b>Aldalur (Aizarna)</b>             | J.M.U.            | <b>Ereñozarra (Aizarna)</b>       |
| B.B.           | <b>Urrutikoetxea (Aizarna)</b>       | I.O.              | <b>Akoarretxea (Akoa)</b>         |
| X.B.           | <b>Autsogain (Aizarna)</b>           | A.L.              | <b>Elkoeta (Aizarna)</b>          |
| E.A.           | <b>Txiribogatxiki (Txiriboga)</b>    | A.L.              | <b>Txiribogaberri (Txiriboga)</b> |
| J.O.ren ordez  | <b>Igarantxo (Aizarna)</b>           |                   |                                   |
| Lorea Ilundain | <b>zinegotzia</b>                    | Montse Atxega     | <b>zinegotzia</b>                 |
| Aitor Ossa     | <b>zinegotzia</b>                    | Izaskun Larrañaga | <b>ingurumen teknikaria</b>       |

### 1. Landa lursailen digitalizazioa


Aipatu da Foru Aldundiko katastroak ez dituela ondo jasotzen lursailen mugak eta azalerak. Hori dela eta, gero eta herri gehiagok digitalizatu ditu udalerriko landa lursailak: Urretxu, Ezkio Itsaso... Bertaratuei adierazi zaie Foru Aldundia ere, arazoaren jakitun izanda, duela urte batzuk dirulaguntza lerro bat argitaratu zuela Gipuzkoako udalerrientzat. Azken urteetan inguruko hainbat herri jardun dute lan horretan: Aia, Azpeitia... Zestoako Udala ere digitalizazio lana egiten hasteko asmoa duela berri eman da. 4 urtetako plangintza bat egitea aurreikusi du Udalak. Plangintza ziriborroaren maparen kopiak banatu dira partaideen artean. Bertan, 2024-2027an hasita lanak zer zonaldetan egingo diren jasotzen da.



ZESTOAKO UDALA

## LANDA LURSAILEN DIGITALIZAZIOA

Plangintza ziriborroa (2024-2027)



S.L.k adierazi du bere lursailen mugekin arazoak dituztela. Ondoko lurretan lehengo jabeen ondorengoek ez dutela lehengo mugen informaziorik. Hori ekiditeko tresna baliagarria izan daiteke digitalizazioa.

Honakoak azpimarratu dira:

- Ikusita, Udalean eskaera gehienak Aizarna eta Txiriboga ingurutik jaso direla, eremu honetatik hastea erabaki da.
- Lan handia da. Udallerriak azalera handia duenez, 4 urtetan banatzea proposatu du Udalak.
- Soilik landa lurreko partzelak aztertzen dira.
- Hasieran aurkezpen bilera bat egingo da Udaleko teknikariek proiektua azaltzeko.
- Lurjabeekin egiten den lehen bileran liburuxkak banatuko dira, horien gainean, proposamenak jasotzeko.
- Proposamenak jaso ondoren eta lursailak bertan ikusita, azken liburuxka bat banatuko da.
- Mugakideak mugekin ados ez badaude, lursaila katastroan dagoen bezala gelditzen da. Ados badaude, muga aldaketa egiten da.

Jakitera eman da banatu den plangintza ziriborroa proposamen bat dela eta denborarekin aldaketak egon daitezkeela. Plangintza hau fintzen eta zehazten joango da Udala.



## 2. Baserri bideen konponketak

Aitor Ossak adierazi du 2016an bideen inbentario bat egin zuela Zestoako Udalak Foru Aldundiak eskatuta. Horren gainean eguneraketak egiten ari da Udala baserri bideen konponketarako oinarri izateko. Balorazioaren arabera, okerren daudenak honakoak dira: Lasorrekako bidea (Otola ingurua), San Lorente bidea eta Santa Engraziko bentarako bidea. Inbentarioan guztira 100 bide eta 66 kilometro daude jasota.

Horrez gainera, partxeoak behar dituzten zenbait bide (Ezenarrobidea...) eta labainak daudenak (Trukumanbidea, Urdanetabidea...) aipatu dira.

O.L.k gaineratu du Aizarnatebidea ere oso labaina dagoela, Igarantxora joateko zatia ere. J.A.k Ertxiñeko ustiategira doan bidearen egoeraren berri eman du. Azken zatia ez da publikoa eta "todo uno" botata dute. Hasierako zatia erabilera publikokoa da eta azken zatia publikoa egitea eskatu du. S.L.k horren harira adierazi du jakin izan duela bidea udalak hormigonatutakoan publikoa bihurtzen dela.

J.E.k komentatu du Urdanetabidearen egoera ez dela ona. Auzokideez gain, bestelako kamioiak ere ibiltzen direla eta egoera hobetzeko Aiako Udalarekin koordinatuko beharko litzatekeela. Gaineratu du bidea txukun egotea ere komeni dela. Bide ertzak maiatzean eta berriro udazkenean garbitzea proposatu du. Aiako zatia maiatzean eta abuztuan garbitzen dutela jakitera eman du. Belarra hazten denean bidea estua gelditzen da eta ez da ondo ikusten. Beraz, horrek ere lehentasuna duela dio.

A.L.k 2022an Zestoako Udalean aurkeztutako eskaera baten kopia eman die udaleko ordezkariari. Dirudienez, egoerak berdin jarraitzen du eta kontuan hartzeko eskatu du.

X.B.k, azkenik, Aizarnatik jaitsi eta Iraetara joateko bidegurutzean, ezkeraldera ez dela ondo ikusten adierazi du. Alde hori metro inguru egokitzea nahikoa litzateke egoera hobetzeko.

Gai honekin amaitzeko, Aitor Ossak gogoratu du Udalak "Zestoa geuk egina" aplikazioa duela herritarrek eskaerak, inzidentziak, proposamenak... aurkezteko, eta bertaratukoak erabiltzera animatu ditu.

## 3. Silo bola plastikoen bilketa

Honakoak gogoratu dira:

- Plastikoak hileko bigarren asteartean jasotzen dira, zehaztutako puntuetan.
- Bezperan utzi behar dira bilketa puntuetan.
- Plastikoak ahalik eta garbienak utzi behar dira, lokatarik gabe, sokak kenduta eta aparte utzita, plastikoekin nahastu gabe.
- Jasotzen diren plastiko motak:
  - Siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza
  - Belar boletan erabiltzen den plastikoa
  - Negutegietan eta baratzetan lurra estaltzeko erabiltzen den plastikoa
  - Sokak eta plastikozko pentsu zakuak, aparte bereizita.



ZESTOAKO UDALA

J.A.k proposatu du baserritarrei oharra banatzea, informazio guzti hori gogoratzeko.

Haizeak sortzen dituen arazoak direla-eta, egituraren bat jarri behar bada, baserritarrak bolak uzterakoan eta biltzaileek jasotzerakoan arazorik ez edukitzea kontuan hartu behar dela adierazi da.

#### **4. Tokiko elikaduraren sustapena**

Aitor Ossak tokiko elikadura, lehen sektorea eta baserritarren lanaren garrantzia azpimarratu ditu. Udalak bertan ekoiztea eta bertako produktuak kontsumitzea sustatu nahi dituela gaineratu du. Horrekin lotuta, herritarrak informatu eta sentibilizatzeko "Zestotik mahaira" agroekologia zikloa antolatu zuen Udalak (dokumentala, hitzaldia, sukaldaritza ikastaroa...). Balorazio positiboa egin du Udalak, nahiz eta herritar gutxi agertu, elkarrizketa eta eztabaida interesgarria sortu zelako. Horretan jarraitzeko asmoa dagoela aipatu du Aitor Ossak.

Gainera, Urkomerekin eta Biolurrekin elkarlana egin nahi du Udalak. Biolurrek Iraetako Amilibia baserria erosi eta nekazaritza lurrian hainbat proiektu egiteko asmoa du (bertako garia erein bariatateak ikusteko...). Urkomerekin ostiraleko azokan bertako produktuen txoko bat jarri nahi da, bertako nekazaritzari garrantzia emateko.

Horrez gainera, herriko dendekin lanketa egin nahi da bertako produktuak saltzeko.

Proposamenak eta ideiak ongi etorriak izango direla adierazi du Aitor Ossak.

J.E.k amaitzeko dio behar ez diren lurrak gazteei utzi eta alternatiba interesgarria izan daiteke bertatik bizitzeko.

#### **5. Basoak eta lursailak**

Aitor Ossak aipatu du Udalak bertako espezieak landatu eta bertako basoak sustatu nahi dituela Udalak. Baso osasuntsua bermatu nahi da, azken finean, natura sanoak, nekazaritza sana, abelzaintza sana eta gizarte sana dakarrelako.

Baso lursail gehienak pribatuak direla dio eta Udalak baso eremuak erosten hasi nahi duela. Printzipioz, tasazio prezioaren arabera erosteko asmoa du Udalak, hortik gorako prezioan ez. Gai hau bideratzeko aliatu posibleak Tantai baso jabe kooperatiba eta Basoa fundazioa izan daitezke.

S.L.k jakitera eman du udaleko zenbait lursail beraien terrenoetan zeudela eta kendu egin zituztela.

X.B.k, gai honen harira, adierazi du Txakartegi azpia kasorik egin gabe duela Udalak. Bestalde, aipatu du Foru Aldundiak duen politika lur jabe handiei begira egiten duela eta txikiak kanpoan gelditzen direla.

Hemen ere, ideiak ongi etorriak izango direla azpimarratu du Aitor Ossak.



ZESTOAKO UDALA

S.L.k komentatu du ahuntz talde bat libre dabilela Aizarnan eta baserritar batenak direla. Neurriak hartu beharko liratekeela dio.

## 6. Komunikazio kanalak baserritarrekin

Lorea Ilundainek baserritarrekin urtean hiru batzar egingo direla informatu du; zonalde bakoitzean bat. Hiru bilera horiez gain, komunikazioa edukitzeko bideak zehaztea proposatu du: kartelak jarri, panelak baserrietan, sare sozialak... J.A.k gaineratu du SMS bidez jaso izan dituztela beste bilera batzuetako deialdiak.

Partaideen iritziak eta proposamenak jaso ondoren, Lorea Ilundainek adierazi du difusio kanala egingo dela whatsapppe, deialdiak, berriak... bidaltzeko. Kanal horretan informazioa jaso besterik ez da egingo. Batzarraren bukaeran parte hartu nahi dutenen telefonoak jasoko dira.

Lorea Ilundainek gogoratu du edozein galdera, kexa, eskaera... edukiz gero, udaletxera jo daitekeela edo aplikazioa erabili.

Azkenik gai hauek ere aipatu dira:

- **Mendiko ura erabiltzeagatik kobratzea.** Aurreratu da herri batzuetan Ura Ur Agentzia kontadoreak jarri eta kobratzen hasi dela manantialetako ura erabiltzeagatik.
- **Fibra optikoa.** Zabaltzen ari da udalerriko baserri eremuetan eta data bat dute amaitzeko. Udalak ikusi beharko du noraino iritsi den eta zerbait falta den. O.L.k bere baserri ingurura ez dela iritsi aipatu du eta F.Z.k Indo inguruan posteak erorita daudela. Hainbat gunetan jarrita dago fibra; esate baterako, Arbegain inguruan.